



DEIALDIA, HAUTAPROBEN BITARTEZ BI IZANGAI-ZERRENDATA OSATZEKO –BAT PRESTAKUNTZARAKO, ETA BESTEA ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO–, MUGIKORTASUNEKO OFIZIAL IKUSKATZAILEAREN LANPOSTUAN (C MAILAKOA) ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

1. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDATA BAT OSATZEKO, PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZIEN EGOERAN MUGIKORTASUNEKO OFIZIAL IKUSKATZAILE (C MAILAKOA) ARITZE ALDERA

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena.-Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da izangai-zerrendata bat hautaprobek bitartez osatzeko, **MUGIKORTASUNEKO OFIZIAL IKUSKATZAILE** lanpostua (C MAILAKOA) prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran betetze aldera, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.- Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Deialdian parte hartzen dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak izatea, deialdiko plazen maila berekoak edo beheragokoak, eta eskubidez dagokien gehieneko prestakuntza-aldia agorturik ez edukitzea.
- b) Lanpostuan benetan zerbitzua ematen gutxienez hiru urte eman izana.
- c) Ez egotea borondatezko edo nahitaezko eszedentzian.
- d) Batxilergoko, bigarren mailako Lanbide Heziketako edo horietako baten baliokidea den titulua izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen titulua eskuratzeko moduan egotea.

Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztatzea eduki beharko da.

2.2. Izangaiek agiriak bitartez egiaztatu beharko dute oinarri hauen 2.1 apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola prestakuntza-aldian ere.



Hirugarrena.-Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunetan xedatutakoarekin bat egingen da.

Laugarrena.- Prestakuntzako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta, hala badagokio, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran aritzeko izendapena egingen da honako hauetan ezarritakoarekin bat: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua eta dagozkion aldaketak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Aipatutako erabakian berariaz ezartzen da prestakuntzarako zerrendak lehentasuna izanen duela beste zerrenda honen aldean: aldi baterako kontrataziorako hautapen-probetarako deialdi publikoen bidez eratutako izangai-zerrenda.

2. DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDA BAT OSATZEKO, ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAN MUGIKORTASUNeko OFIZIAL IKUSKATZAILE (C MAILAKOA) ARITZE ALDERA

Hona deialdi hau arautuko duten oinarriak:

OINARRIAK

Lehena.-Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da, izangaien zerrenda bat hautaproben bidez osatzeko, **MUGIKORTASUNeko OFIZIAL IKUSKATZAILE** lanpostuan (C MAILAKOA) aritzeko, Iruñeko Udalean eta haren erakunde autonomoetan aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena.-Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa.

Halaber, parte hartzen ahalko dute Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu batekoa edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetakoz nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere, baldin eta zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, haien ondorengoek eta ezkontideenak –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda independizatu ez badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gaunditua ez izatea.

c) Batxilergoko, bigarren mailako Lanbide Heziketako edo horietako baten baliokidea den titulua izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen titulua eskuratzeko moduan egotea. Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztagiria eduki beharko da.

d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituzten eginkizunetan aritzeko.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaiturik edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ere.

f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko deklarazio bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.



2.2. Izangaiek agiriaren bitartez egiaztatu beharko dute 2.1 apartatuan eskatzen diren titulazio-baldintzak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena.- Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdien arau komunean xedatutakoarekin bat egiten da.

Laugarrena.- Aldi baterako kontratazioetarako izangaiei dei egitea.

Izangaiei deitzea, eta hala badagokie, haien kontratazioa honako arau hauetan ezarritakoarekin bat egiten da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –Iruñeko Udalean langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

Halaber, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men egiten zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetan hamar plazatik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beteak izateko, betiere kasuan kasuko hautaprobak gaingiditzen badituzte eta beren egoera frogatzen badute.

BI DEIALDIETARAKO ARAU KOMUNAK

Jarraian zehazten dira mugikortasuneko ofizial ikuskatzaile (C mailakoa) lanpostuaren eginkizun orokorrak:

1. Txosten teknikoak eta kalteen ikuskapena

- Bide publikoan izandako gorabeherei buruzko txosten teknikoak egitea (hiri-altzarietan izandako kalteak, erorikoak, talkak eta abar), agiri grafikoak eta balorazio teknikoa barne.
- Txostenak Ondare Alorrari edo beste alor eskudunei bidaltzea.
- Beharrezkoa denean, txosten horiek eragindako espedienteak izapidetzen laguntzea.

2. Bizikleta bidezko mugikortasuna eta horri lotutako programak kudeatzea

- Bizikletak aparkatzeko moduluen instalazioa kudeatzea: izapideak egin, herritarrei arreta eman eta horiek behar bezala jartzen direla gainbegiratzea bertan.
- Bizikleta-parkeetako altak izapidetzea eta erabiltzaileen gorabeherak kudeatzea, Herritarren Segurtasunarekin koordinatuta.
- Bizieskola programak (haur eta helduak) gainbegiratzea eta kontrolatzea:
 - Enpresa adjudikaziodunaren lan-planak berrikustea.
 - Ikastetxeen eta enpresaren arteko lotura gisa jardutea.
 - Ikuskapenak egitea eta baldintza-agiria betetzen dela kontrolatzea.
- Helduendako Bizikleta eskola koordinatzea:
 - Daten eta logistikaren ingurukoak kudeatzea.
 - 010 zerbitzuarekin koordinatzea eta guneen erreserba egitea.
 - Bizikleten mailegua kudeatzea eta berrikustea.
 - Aurrez aurreko laguntza ematea langilerik ez dagoenean.
- Eskola-ibilbideen proiektuetan parte hartzea:
 - Ikastetxeekin egiten diren bileretara joatea.
 - Ibilbide seguruak eta seinaleztapen horizontala eta bertikala gainbegiratzea.

3. Aparkaleku eta ibiak kudeatzea

- Emakida administratiboko aparkalekuetan titulartasun-aldaketak izapidetzea, eta betekizunak egiaztatzea ebazpen formalik eman beharrik gabe.
- Aparkalekuetan ikuskapen fisikoak egitea:
 - Plazak behar bezala erabiltzen direla egiaztatzea.
 - Matrikulak egiaztatzea eta erabilera okerrak hautematea.
- Ibien kontrola eta digitalizazioa kudeatzea:

- Datu teknikoak biltzea (neurketak, argazkiak eta GPS kokapena).
- Udal GIS sisteman ibiak digitalizatzea eta georreferentziatzea.
- Espediente administratiboekin lotutako fitxak egitea eta mantentzea.
- Zehapen-espedienteetan edo ez-betetzei buruzko errekerimendu-espedienteetan laguntzea.

4. Espazio publikoa ikuskatzea eta okupazioa kontrolatzea

- Seinaleztapen horizontala eta bertikala behar bezala dagoela gainbegiratzea (oinezkoen pasabideak, erreiak, panelak eta abar).
- Materialen kalitatea eta kontratatutako lanen betetze tekniko ebaluatzea.
- Bide publikoaren okupazioa kontrolatzea.
 - Baimendutako planoen eta emandako azalaren betetzea egiaztatzea.
 - Aldi baterako instalazioak ikuskatzea, bereziki ekitaldi eta azoka txikietan.
- Gorabeherak, irregulartasunak eta hobetzeko aukerak hautematea kalean egiten duen eguneroko lanean.

5. Herritarrei arreta ematea eta komunikazioak kudeatzea

- Herritarren argibide-eskaerak, kexak eta erreklamazioak artatzea eta kudeatzea, aurrez aurre, telefonoz, posta elektronikoz edo 010 zerbitzuaren bidez.
- Jasotako eskaerei erantzun tekniko eta administratiboak ematea.
- Zerbitzuaren posta elektroniko orokorra kudeatzea, eta, horretarako, komunikazioak sailkatzea eta burutzara edo administrazioko langileengana bideratzea, edo, hala dagokionean, zuzenean kudeatzea.

6. Hobetzeko proposamenak egitea eta ekitaldietan laguntzea

- Espazio publikoa eta zerbitzuaren jarduna hobetzeko txosten proaktiboak egitea.
- Mugikortasunarekin lotutako ekitaldiak antolatzen eta garatzen laguntzea, hala nola Mugikortasunaren Astea (B mailako zereginak).

DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehena. Eskabideak.

1.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Bi deialdietan parte hartzeko eskabideak hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdien testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.

1.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

1.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik ordaindu beharreko tasa 7,80 eurokoa da. Tasa modu telematikoan ordainduko da, eskabidea formalizatzeko unean, modu telematikoan ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

1.4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.4.1. Eskabidea online aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Deialdian parte hartzeko baldintza gisa eskatutako titulazioen kopia.

Nahi duenak, eskabidea aurkezteko unean, kontsultaren kudeatzaileari baimena eman ahal izanen dio titulua Hezkuntza Ministerioaren datuak egiaztatzeko zerbitzuan bilatzeko, baina aukera horrek ez du beti bermatzen egiaztapena. Hori gertatuz gero eta izangaia ez badu titulazioaren kopiarik aurkezten, onartuen zerrendatik kanpo geratuko da.

Atzerrian eskuratutako tituluen kasuan, dagokien baliozkotzea edo, bestela, horren homologazio-egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

1.4.2. Desgaitasun bat aitortua duten izangaiek hori frogatzeko agiria –organo eskudunak emana– aurkeztu beharko dute. Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen dituzten.

1.4.3. Deialdian parte hartu nahi duten eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek baldintza hori egiaztatu beharko dute, genero-indarkeriako delitu batengatik kondena-epaia, babes-agindua edo genero-indarkeriaren biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial aurkeztuz, edo Ministerio Fiskalaren txostena aurkeztuz, non adieraziko baita demandatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela. Halaber, genero-indarkeriazko egoerak egiaztatzen ahalko dira gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimentzako Administrazio Publiko eskudunaren harrera-zerbitzuen ziurtagiriaren eta txostenaren bidez.

1.4.4. Agiri horiek aurkeztzen ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta ordura arte haiek gauzatutako egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, eskabidean egindako faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra ezertan galarazi gabe.

Aski izanen da agirien kopia soilak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du horrelako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

Bigarrena. Izangaien onarpena. Behin-behineko zerrendak eta behin betikoak.

2.1. Eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko da.

2.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzean adierazten den izapidearen bidez.

2.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako lehen hautapropa egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Baztertutako izangairik ez badago, behin betiko zerrenda zuzenean onetsiko da eta Iruñeko Udalaren webgunean argitaratuko da, lehen hautapropa egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

2.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

2.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legozkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Hirugarrena. Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesua 2026ko martxoan hasiko da, eta bi proba izanen ditu, oinarri hauetan adierazten den moduan:

3.1. Bi proba egingen dira, egun bakarrean edo bi egunetan. Epaimahaiak zehaztuko du.

a) Lehen proba: test erako galdetegia.

Ariketa teorikoa izanen da. Izangaiek test erako 100 galdera erantzun beharko dituzte gehienez ere, idatziz, 120 minutuko tartean, gehienez, deialdi honen I. eranskinean jasotako gai-zerrendako gaiei buruz. Galdera bakoitzak erantzun posible batzuk izanen ditu aukeratzeko, baina bat bakarra izanen da baliozkoa. Proba egin aurretik zehaztuko dira proba hori balioesteko irizpideak eta hainbat erantzun-aukera dituzten galderetan akatsak nola zigortuko diren.

Proba honetan gehienez ere 50 puntu eskuratzen ahalko dira. Bazterturik geldituko dira ariketan gutxienez 25 puntu erdiesten ez dituzten izangaiak.

b) Bigarren proba: bi kasu teoriko-praktiko ebaztea.

Teoriko-praktikoa. Izangaiek kalifikazio-epaimahaiak proposatutako kasu bat edo batzuk ebatzi beharko dituzte ordenagailuan. Horretarako, gai-zerrendan jasota datozen aplikazioak eta sistema eragileak erabiliko beharko dituzte; era berean, kasu praktikoak I. eranskineko gai-zerrendan agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira. Izangaiek ariketa egiteko izanen duten gehieneko denbora kalifikazio-epaimahaiak zehaztuko du, hura hasi aurretik.

Proba egiteko, izangaiei behar dituzten baliabide teknikoak emanen zaizkie.

Bigarren proban gehienez ere 50 puntu eskuratzen ahalko dira. Gutxienez 25 puntu erdiesten dituztenek gaindituko dute proba.

3.2. Probarako deialdi bakarra egingen da, eta izangaiak nortasun agiri nazionala, AIZa, pasaporteak edo gidabaimena aldean dutela agertuko dira. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertuta geratuko dira.

3.3. Hautaprobak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko dira, probak egiteko denboraren nahiz bitartekoen aldetik, desgaitasuna aitortua eduki eta eskabidean halakorik eskatu duten izangaiendako.

3.4. Proba egin ondoren, Udalaren webgunean argitaratuko dira izangai bakoitzak lortutako emaitzak.

3.5. Proba bakoitzeko emaitzen aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Laugarrena. Kalifikazio-epaimahaia.

4.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Alexia Canto Álvarez, Iruñeko Udaleko Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko arduraduna.

Epaimahaiburu ordezkaria: Xabier Burgui Vergara, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendaria

Epaimahaikidea: Juan Manuel Gil Larequi, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasuneko Alorreko zuzendaria.

Epaimahaikide ordezkaria: Patxi Iriarte Echenique, Iruñeko Udaleko Hiri Kontserbazioko eta Osasuneko Alorreko zuzendaria

Epaimahaikidea: Judith Blanco Santamaria, Iruñeko Udaleko lizentzia, ibi eta aparkalekuen zerbitzuko burua

Epaimahaikide ordezkaria: Elena Camarero Mate, Iruñeko Udaleko Obretako zerbitzuburua.

Epaimahaikidea: Julio César López Polo, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, Batzordeak berak izendatua.

Epaimahaikide ordezkaria: Mikel Aingeru Santesteban Etxeto, Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkaria, batzordeak berak izendatua.

Idazkaria: Mónica Lana Elola, Iruñeko Udaleko Hiri Kontserbazioko eta Osasuneko Alorreko idazkari teknikoa.

Idazkari ordezkaria: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

4.2. Hautaprobak egiten hasi aurretik eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ez eta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa ez badago bertan.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoei, kontuan harturik ordezkari izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezkari gisara izendatutakoak, bigarren ordezkari egitea beharrezkoa izanez gero.

4.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean horretarako ezarriak dauden arrazoiak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.



4.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

4.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira arituko, eta horietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

Bosgarrena. Gaingitu dutenen zerrenda.

5.1. Behin proben kalifikazioa amaituta, epaimahaiak Udalaren webgunean argitaratuko ditu, bereizirik, honako zerrenda hauek:

- a) Prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran aritzeko deialdia gaingitu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.
- b) Aldi baterako kontratazioari dagokion deialdia gaingitu duten izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dizkio zerrendak, onets ditzan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

5.2. Izangaien puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, Giza Baliabideetako Alorrean xede horretarako eginen den zozketaren bidez ebatziko dira.

5.3. Izangai-zerrendak izangaiak deitzeko hurrenkerarekin bat onetsi aurretik, osasun-azterketa bat eginen zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Seigarrena. Izangaien zerrendak eta dei egitea.

Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaiak deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko dira.

Ebazpen honek onesten dituen deialdien oinarriek ezartzen dutenarekin bat deituko zaie arau honek aipatzen dituen zerrendetako izangaiei, eta kasu guztietan bermatuko da prestakuntzarako izangaiek lehentasuna edukiko dutela aldi baterako kontratazioetarako izangaien aurretik.

Momentu horretan eskatzen ahalko zaizkie deialdi honetan eskatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatutak edo legeekin bat kautotuak.

Ohiko lanaldia astelehenetik ostiralera izanen da, goizeko ordutegian, eta baliteke astean zenbait arratsalde lan egin behar izatea. Zerbitzuaren beharren arabera, Giza Baliabideetako zuzendariak ordutegia aldatzen ahalko du, Alorreko zuzendariarekin kontsultatu ondoren.

Zazpigarrena. Errekurtsoak.



Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahal da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtsu hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsuak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, ¿????????. Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.

I. ERANSKINA

Gaitegi orokorra

1. Genero-berdintasuna: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako. Atariko titulua. I. titulua: Berdintasun-printzipioa eta diskriminazioaren kontrako babesa. II. titulua: Berdintasunerako politika publikoak. Printzipio orokorrak. V. titulua: Berdintasun-printzipioa enplegu publikoan (I., II. eta III. kapituluak).
2. Iruñeko Udalaren Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia: betearazpen-laburpena.
3. Informatika-kontzeptuak: Word 2016 testuen tratamendua, Excel 2016 kalkulu orriak, espedienteen kudeaketa, Internet eta posta elektronikoa.

Gaitegi espezifikoa

1. Iruñeko Udalaren Mugikortasuneko Ordenantza.
2. Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (MPI): Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko urtarrilaren 12ko ebazpena, zeinaren bidez onesten den Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen ezaugarrien eskuliburua.
3. Eskolarako bide seguruak. Ezartzeko metodologia. Eskolako mugikortasuna aztertzeke tresnak. Eskolako ingurunea aztertzeke tresnak. Proiektuaren ebaluazioa.
4. Iruñeko Bidegorrien Plana 2017-2022 aldirako. Bidegorrien tipologiak. Bidegorri-sarea egituratzeko esku-hartze irizpideak. Ibilbideen hierarkizazioa. Diseinu-irizpideak.
5. Bizikleta-aparkalekuen sare publikoa (txandakakoak). Kokalekuak. Tarifak. Erabilera arauak. Aparkalekuetara sartzeko alternatibak.
6. "Bizikleta Eskolan" hezkuntza-programa. Metodologia eta lan-saioak. Ikasle talde hartzaileak.
7. Bizilagunendako bizikleta-aparkaleku publikoak. Kokalekuak eta ezaugarriak. 15. araua, prezio publikoa arautzen duena. Erabilera arautzen duen ordenantza.
8. 142/2004 Foru Dekretua, abuztuaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituena. I., II. eta III. eranskinen 2. kapitulua: eraikinaren baldintzak. Garajeak.



9. 19. Ordenantza fiskala, ibilgailuak espaloietan barna sartzeko eta eremu publikoa aparkaleku eskusibo gisara erabili, ibilgailuak gelditu eta edozein motatako salgaien zamlan egite aldera toki erreserbatzeko ordaindu beharreko tasak arautzen dituen.
10. DBSI (Sute-kasuetarako segurtasunari buruzko Oinarrizko Agiriak) Eraikingintzaren Kode Teknikoa: DBSI -1: barrualdean hedatzea. DBSI -3: eraikinean dauden ebakuatzea. DBSI -4: suteen aurka babesteko instalazioak.
11. DBSUA (Sute-kasuetarako segurtasunari buruzko Oinarrizko Agiriak) Eraikingintzaren Kode Teknikoa: DBSUA-1: zoladuren irristakortasuna. DBSUA-2: segurtasuna inpaktu- edo harrapatze-arriskuaren aurrean. DBSUA-4: argiztapena. DBSUA-7: segurtasuna mugitzen ari diren ibilgailuek eragindako arriskuaren aurrean. DBSUA-9: aparkatzeko toki irisgarriak.
12. Bide publikoan terrazak eta merkataritzari zein ostalaritzari loturiko bestelako elementuak jartzea arautzen duen Ordenantza.
13. 465/2025 Errege Dekretua, ekainaren 10ekoa, Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorra aldatzen duena, trafikoko seinaleen arloan, azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onetsia.

Deialdi hau argitaratzen den egunean indarrean dagoen araudiaren arabera eskatuko dira gai guztiak.